



PDF irigarria

ZUGARRAMURDIKO SORGINEN MUSEOA

Zugarramurdiko
Turismo Gida

Aurkibide

1. Ongi etorri

2. Zugarramurdi

3. Lezea

4. Sorginen Museoa

5. Informazio erabilgarria

6. Gure bailara

1. Ongi etorri

Hemen, hitzek paisaiak xuxurlatzen dituzte eta misterioak hartzen dituzte barne. Gogora ekartzen dizkigute maitasunez gordetzen eta guregana etortzen denarekin partekatzen ditugun istorioak.

Zugarramurdik, sorginen herriak, harrera egin eta bere sekretuak kontatzen dizkizu. Lasaitasunez entzun, behatu, arnastu... besterik ez duzu egin behar. Lau hitz guri buruz mintzo dira.

Gure memoria osoa zurea da orain, ezagutu nahi baduzu. Turismo birsortzailean, jasangarrian eta kontzientean sinesten dugu, eta egunero saiatzen gara sustatzen. Har ezazu denbora eta senti ezazu gure bizimodua.

Lurra. Lurralde mugakidea zapaltzen ari zara. Bazter, gailur, erreka, belardi bakoitzaren atzean, kontatzea merezi duen kontaketa bat duzu zain.

Lezea. Gure iraganaren bihotzak taupada egiten duen lekua, akelarreen tokia, erritu sakratuena eta izaki mitologikoen bizilekua.

Sorgina. Naturaren adituak, sendabelarrenak, emaginak. Duela laurehun urte, gure izaera betiko markatu zuten gertakari batzuen protagonistak.

Etxea. Elkartzeko tokia, eta elezaharrak kontatzekoa sutondoan. Gure kaleetan oinez ibiltzea, gure baserrien itxura eta tamaina mirestea xarmagarria da bere horretan.

Gure memoria osoa zurea da orain, ezagutu nahi baduzu. Turismo birsortzailean, jasangarrian eta kontzientean sinesten

dugu, eta egunero saiatzen gara sustatzen. Har ezazu denbora eta senti ezazu gure bizimodua.

Ongi etorri Zugarramurdirat.

2. Zugarramurdi

Ingurune magikoa

Zugarramurdi Nafarroaren iparraldean dago, mendien eta bailaren berdetasunaren artean, eta mendeetan zehar bidaia liluragarria egiteko aukera ematen dizu. Berrehun biztanle baino zertxobait gehiago dituen herri honetan, natura eta historia elkarri lotzen zaizkio besarkada betiereko batean.

Toki pribilegiatu batean bizi gara, eta horrek gure izaera markatzen du. Gure sustraiak mugaz haraindiko Xareta eskualdearen bihotzean oinarritzen dira, Iruñetik hirurogeita hamar kilometrora, Donostiatik berrogeita hamarrera eta Donibane Lohizunetik hogeira.



Itsasaldetik gertu-gertu

Hemen, Kantauri itsasoa gertu dagoela sumatzen da, Ipar Euskal Herriko hondartzen udako lurrina eta bai lurra lantzen zuten, animaliak hazten zituzten eta, gaua heltzen zenean, ezkutuan eta isilik, kontrabandoa lantzen zuten arbasoen herentzia ere.

Maitemina eragiten duten paisaiak

Zugarramurdi izenak–bertakoek esango dizute– zumarrei, hurritzei eta ereinotzei egiten die aipamena. Paisaia dena da. Mendixka txikiak, abereak sakabanatuta dituzten belardiak, bazkalekuak eta pagadiak ikusiko dituzu.

Geografiaren kapritxoak

Baztan udalerri ederrak ia osorik inguratzen gaitu, ekialdean dagoen zati txiki batean izan ezik, aldameneko Urdazubi herriarekin mugatzen duenean. Gure baserriak sei kilometro koadrotan sakabanatuta daude, lau auzotan: Azkar, Madaria, Etxartea eta Olasur.



Argazkia. Bertako ekonomiari egiten dion ekarpenaz gain, abeltzaintzak eginkizun nabarmena du paisaiari eustean eta biodibertsitatea babestean.

Bi historia-zertzelada

Zugarramurdiri buruzko lehen aipamen idatziak 1154koak dira. Orduan, Urdazubiko San Salvatore premontretarren ordenaren monasterioaren babesean zegoen etxalde bat besterik ez zen.



Argazkia. Urdazubiko San Salvatore monasterioaren fatxada nagusia.

Logroñoko Fede Autoa

XVII. mendean herriaren bizimodua lurrari lotuta zegoen, jakinduria, ohiturak eta mundu magikoa, nagusiki paganoa, lotuta zeuden moduan. Urte bat, 1610a, iltzatuta gelditu zen betiko gure memoria kolektiboan. Logroñoko Fede Autoa gertatu zen, gure historiako gertakari ilunenetako bat, herri honetako 40 biztanle auzipetzea ekarri baitzuen.

Sorginen Museoak erakusketa liluragarria proposatzen du, eszenografiak eta ikus-entzunezko baliabideak konbinatzen dituen, bisitaria XVII. mendera eramateko.

Sorginen herria

Sorginen herri moduan ezagutzen gaituzte. Sorgin horiek gure leze handian elkartuko ziren, eta haren lurzorua zeharkatzen duen errekan, Infernuko Errekan, eskuak garbituko zituzten.

Zugarramurdiko Lezea tunel natural ikaragarria da, 120 metroko baino gehiagoko luzera eta 12 metroko altuera duena.

Memoria duten baserriak

Ustez sorginak edo belagileak ziren emakumeak bizi ziren baserriak zutik daude. Ibiltzen zituzten bideak. Akelarreak egiten zituzten haitzuloak. Orain, haien kontaketa ohoratu eta partekatu nahi dugu.



Argazkia. Eguneroko bizimoduaren birsorkuntza, duela laurehun urteko sukalde batean. Etxean erabiltzen ziren gauzak ikusteko aukera izango duzu eta bai sendabelar moduan erabiltzen zituzten osagaien irudikapena ere.

→ [Ikusi webgunean](#)
[**Zugarramurdiren historia**](#)

Gaur egun, hobekien gordeta ditugun altxorak, Lezea eta Sorginen Museoa, ezagutzeko guregana urtero etortzen diren milaka bisitariak arretaz eta kontuz hartzen ditugu.

Zain gaituzu.

Lurralde erromesa gara. Gure udalerritik Baztango Donejakue bidea igarotzen da, Frantziako Baiona hiria Iruñearekin lotzen zuen adarra.

→ Ikusi webgunean Turismo bulegoa

Paseo pausatua

Beste sekretu bat partekatu nahi dugu zurekin. Ez izan presarik Lezera ahalik eta azkarrena iristeko. Zugarramurdik paseo pausatua merezi du, arkitektura tradizionala, armarrria duten etxeak eta eraikinen xehetasunak miresteko, bertako historiaren, kulturaren eta herritarren isla.


Arretaz kontserbatzen dugu inguru honetako arkitektura bereizgarria, harrizko fatxadekin eta zurezko armazoiekin.

Zugarramurdin kalez kale ibiltzen

Bertako etxetzarren itxura eta tamaina, kale harriztatuak, lorez gainezka egoten diren balkoiak, arkupe bereizgarriak... Ingurune osoak bultzatzen du erritmoa moteltzera, zentzumenak esnatzera eta haietan duela laurehun urte bizi zirenen bizimodua irudikatzera.

Ez harritu, aterean batean ereinotz-adar txikiren bat ikusten baduzu. Gaur egun, oraindik ere gelditzen dira uxatu beharreko espiritu txarrak.

Gozatu ibilbideaz.



JASOKUNDEKO
ELIZA

UDALETXEA

BASABURUA

ABADE-
ETXEA



PLAZA

DOLAREA
ETXEA

LAPIZTEGIA

MUKURUSTA
ITURRIA

DUTARIA
JAUREGIA

BARRENETXEA
ETXEA

ARROSARIOKO
ANDRE
MARIAREN
ERMITA

TEILETXEA
ETXEA


INDABURUA ETXEA
(SORGINEN
MUSEOA)

BEITIKOKARRIKA

BERETXEA
ETXEA

IKASTETXEA

NARKONEA
ETXEA



LEIZEA
(200 M)

Jasokundeko Andre Maria eliza

Gain pribilegiatu batean kokatuta, 1781 eta 1784 artean eraiki zuten. Ez zuen luzaroan iraun, sute baten ondorioz erortzeko zorian gelditu baitzen Konbentzio gerran (1793), eta, beraz, XIX. mendearen erdi aldera berreraiki egin zuten. Bertako erretaula bikainez gain, jarlekua mantendu izanak pizten du arreta. Etxe bakoitzak bere belaunaulkia zuen, eta andreak aulkia jartzen zuen taulak kontserbatu dira, aldaretik gertuago edo urrutiago, gizarte-mailaren arabera.

Mukurusta iturria

Jasokundeko Andre Maria elizatik gertu, erdi-puntuko arku batek azkendutako iturri hau dago. Udalerrira ura eraman zeneko urtea adierazten da. Inskripzioan hau jartzen du: “Traída en 1869”.

Abade etxea

1729ko data jarrita du, eta bertako fatxadan Urdazubiko San Salvatore premontretar abade-etxearen armarri bat ikus daiteke. Blasoi hori hondo urdin baten gainean irudikatzen zen, zeharka zegoen makila batekin, ilgora alderantzikatu batekin eta zortzi puntako izar batekin.





Dutaria jauregia

Eraikin deigarri eta ezaguna da, 1857an eginarazia izena ematen dion familiak, aldameneko Urdazubi herriko indiano-etxeen estiloan. Behatu arretaz harlandu gorrixkak izkinetan, lorez betetako balkoiak eta bi armarri barroko eder eta sekulako.

Dolarea etxea

Bertako fatxadan harrizko armarri handi bat du, landareen dekorazioa duen blasoia eta barnealdean Gipuzkoako armak, errege baten irudia eta herriaren bereizgarria den xake-itxura.

Arrosarioko Andre Mariaren ermita

XVI. mendeko data du, eta etxe bati erantsita dagoen kapera txiki bat da, Sara herrian aurki daitezkeen otoizlekuen antzekoa.

Barrenetxea etxea

Beheitiko Karrika paseoan dago eta 1610eko inkisizio-prozesuan seinalatu zituzten etxeetako bat izan zen. Etxe honetan bizi zen Graziana Barrenetxea, Ofizio Santuak akelarreko ustezko erregina izateagatik epaitua eta zigortua.

Teiletxea etxea

Etxe honen berezitasuna portxea da, hemen gorape esaten diotena, eta bai muturretan dituen bi kontrahormak ere. Elementu arkitektoniko hau estalkipeko gune bat da, etxea luzatzen duena atari moduan.

Beretxea etxea

1793ko sutean zutik gelditu zen etxe bakarra izan zen. Herri-arkitekturaren adibide bikaina da, hiru solairu eta teilatupea dituen. Azken biek zurezko egitura bereizgarria dute. Erreparatu arretaz erdiko leihoen artean dagoen armarriari. Bertan, kasketa, zenbait haurrek lagundutako aingeru bat eta xake-itxura tipikoa ikusiko dituzu.

Indaburua etxea

Egun Sorginen Museoa dena XVIII. mendearen amaieran Joana Nikolasa Bordarena zen, jatorriz Zugarramurdikoa zen Joan Bautista Dutari merkataria aberatsaren andarena. Alargundu eta gero, Sienako Santa Katalinaren domingotar komentuan sartu zen, eta, bere ondasunak eman zituenean, etxea ospitale eta neskatoentzako ikastetxe bihurtu zuten. 1793an suntsitu egin zuten, Konbentzio gerran.

Narkonea etxea

Etxe honek sustrai sakonak ditu herrian. Egungo izenaren jatorria Navarcorena etxe zaharrean dago, zeina erregistroetan ageri den, gutxienez, 1616tik. Uste da gizon batek eraiki zuela XVI. mendean edo baita lehenago ere.



3. Zugarramurdiko Lezea

→ [Ikusi webgunean](#)
[Erosi zure sarrerak](#)

Sorginen Lezea

Zugarramurdiko Lezea, Sorginen Lezea, gure historiaren bihotza da. Sarrera soutilaren eta beherantz doan eskalinataren ondoren, ikaragarritzko barrunbea agertzen da, aspaldiko garaietako kontaketak xuxurlatzen dituen.

Denbora gelditzen den tokia

Harriaren oihartzunak durundi egiten du pauso bakoitzean, eta argia iragazi egiten da, denboran etenda dagoen mundu bat argizatzen. Goroldioaren freskotasun eta hezetasunak eta landaredi izugarriak esploraziora bultzatzen duen atmosfera magiko bat biltzen dute.

Ama lurra

Toki hau, ama lurraren bihotza, sakratuak eta profanoak elkar besarkatzen duten lekua, aurreneko kokaleku neolitikoen lekukoa eta ustezko akelarreen agertokia izan da. Akelarre horiek deabruari gurtza egiteko ospakizunak zirela adierazi zuen Inkisizioak XVII. mendearen hasieran. Kontrabandistek ere ezkutaleku segurua aurkitu zuten bertako haitzuloetan, salgaiak gordetzeko, muga igarotzeko une egokiaren zain.

Utzi zeure burua sorgintzen!



Bidaia historiaurrera

Zugarramurdiko Lezeak neurri harrigarriak ditu: 120 metroko luzera, 22 eta 26 metro arteko zabaltasuna ekialdeko muturrean eta 12 bat metrokoa mendebaldeko ahoan, eta 10 eta 12 metro arteko batez besteko altuera. Goiko aldean, bi galeria gehiago daude, nagusiaren noranzko berean orientatuak.



Argazkia. Markatuta dagoen ibilbideari jarraituta, Akelarrearen Lezera irits daiteke. Leze txikiagoa da.

Infernuko Erreka

Infernuko Erreka, maila eta ibilgu desberdinetan ibiltzen joan dena, gainazaleko multzo karstiko honen haitzulo nagusia moldatu duen kausetako bat da. Gaur egun ere, temati eta saiatu, higitze-lana egiten jarraitzen du.

Itzulera iraganera

Alderdi honetan, hondakin arkeologiko batzuk aurkitu dira. Jose Migel Barandiaran antropologo eta etnografo ospetsuak Madeleine aldiko suharri-xaflak aurkitu zituen, eta bai historiaurreko zeramiken aztarna batzuk ere Akelarrearen Lezean, Sorginen Lezean eta Lexotoan.

Kontrabandistek ere erabili zuten toki ezkutu hau, salgaiak gordetzeko.

Altxorra, geologiaren zaleentzat

Zugarramurdiko Lezearen jatorria tradizionalki K.a. 14.000. urtean jarri izan bada ere, duela gutxiko azterlan geohidrologikoek iradokitzen dute Akelarreko arloko betegarriek 43.500 urte baino gehiago dituztela, eta, horrenbestez, Pleistozenoan sartzen da.

Bere egitura konplexu horretan hainbat eragilek izan dute eragina milaka urtean: Pirinioak altxatzea eragin zuen tektonika, Zugarramurdiko arroken izaera kareduna eta haien karstifikazioa, iraganeko klima, glaziazio eta desizozteekin, Infernuko Errekak eragindako higadura eta irristatzeen eragina, haietako batzuk Kuaternariokoak, iraganeko klima-eta urtaro-zikloek moldatuta.

Bidexka balizatuak

Toki honetako plazer handietako bat bidexkez gozatzea da. Informazio-taulek balizatuta daude. Utzi autoa Zugarramurdiko herrigunean eta joan oinez, paseatzen, lezearen ahorraino, herria Sararekin lotzen duen bide zaharretik. Hamar minutu eskas dira.

Ibilbide nagusia ordu batean egiten da, gutxi gorabehera. Lehenbiziko geldialdia begiratoki batean egingo duzu, herria eta paisaiaren edertasuna miresteko. Gero, basoan sartuko zara, Infernuko Erreka topatu arte, eta hori zurezko pasagune batzuetatik igaroko duzu. Bidexkak ibaiari paralelo jarraitzen du, bidegurutze batera iritsi arte. Han bide zirkularretik igo ahal izango zara Akelarrearen Lezeraino.



Apoaren elezaharra

1610eko fede auto hartan, hamaika sorgin eta azti zigortu zituzten sutan erretzera, crimen magiae leporatuta. Haien delitua, hainbat tokitan, adibidez, Berroskoberro belardian eta Sorginen Lezean eta Akelarrearen Lezean, akelarreak egin izana, erdi gizon erdi aker zen figura bat buru zuten bilerak.

Elezaharraren arabera, bilera horietara joaten ziren aurreneko gauean, deabruak apo bat ematen zien. Sukaldeko lauzen azpian ezkutatu behar zuten, sorgin ez zirenek ez ikusteko. Apoa ezkutalekutik ateratzen zen eta akelarrea egingo zela abisatzen zuen.

Orduan, makilaz jotzen zuten, botatzen zuen likidoarekin gorputza bustitzen zuten (esku-azpiak, iztaiak, galtzarbeak...) eta aldi berean hitz hauek esaten zituzten: “Hemendik akelarrerat/sasi guztien gainetik/eta laino guztien azpitik”:

Hemendik akelarrerat

sasi guztien gainetik

eta laino guztien azpitik.



4. Sorginen Museoa

→ Ikusi webgunean. **Erosi zure sarrerak**



Omenaldia memoriari

Toki hau denboraren kapsula bat bezalakoa da, memoriari eta iraganari egindako omenaldia. Zehaztasunetik, eta estereotipoetan erori gabe, izaki mitologikoen, sendabelarren eta antzinako errituen unibertso batean sartuko zara. Duela 400 urte baino gehiago Xareta eskualdea ikaratu zuten eta 1610eko Logroñoeko Fede Autoak amaitu zituen gertakarietan barneratuko zaitu Sorginen Museoak.

Iraganetik ikastea

Indaburua etxean kokatuta –garai batean ospitalea izan zen eta komentua XVIII. mendean–, Europa osoan izan zen sorgintza-prozesuaren kontaketa historikoa ematen dizu eta bai XVII. mendeko euskal gizartearen egunerokotasunaren erretratua ere.

Aurreiritzien eta beldur kolektiboen biktima izan ziren arbaso haiei, nagusiki emakumeak izan zirenei, egindako omenaldia da. Begirada iraganera, hartatik ikasteko.

Zentzumen-esperientzia

Zugarramurdiko Sorginen Museoan egiten den ibilbidea sentzoriala, didaktikoa eta entretenigarria da. Ikus-entzunezkoen, pantaila interaktiboen eta eszenografia iradokitzaileen bidez, giroak birsortzen dira eta prozesu inkisitoriala deskribatzen da, bisitariei garai hura ulertzea erraztuz.



Zer aurkituko duzu?

Erakusketa-eremuak eraikineko lehen eta bigarren solairuak hartzen ditu osorik, bisitariaren irudimena hegan jartzen duen goranzko ibilbide bati jarraituta. Hainbat baliabide daude gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez.

Estalkipean dagoen aretoa erabilera anitzekoa da, eta bertan Gustav Henningsenen ondarea aurki daiteke. Sorgintzaren fenomenoan, mundu osoko aditu handientzat jotzen da daniar ikertzaile hori.



Mito baten sorrera

Museoan egingo dituzun aurreneko pausoetan, hunkiberatasun handia sentituko duzu, espiritura eta errespetura eramaten zaituen hunkiberatasuna. Maria Ximildegiri buruzko ikus-entzunezko batek Zugarramurdira nola iritsi zen eta sorgintzako prozesu ilun hau nola piztu zen aurkezten dizu.

Beste gune eszenografiko batek anaia Leon Aranibar pertsona ospetsura gerturatuko zaitu. Urdazubiko monasterioko abadea izan zen, salatzailea Inkisizio Santuaren aurrean eta zentzugabekeria haren metxa piztu zuena.

Prozesu inkisitoriala

Garai hartan, sorgin guztiak ehizatu behar zirela uste zen. Bibliako Irteera liburuko XXII. kapituluko 18. bertsetak hau dio: “Ez utzi sorginik bizirik”. Aurreiritziak, beldurrak eta ulertu ezina pairatu zuten, beste ezagutza-modu batzuk planteatzen zituztelako. XVII. mendearen hasieran, sorgin esaten zieten pertsonak sakon ezagutzen zituzten natura eta sendabelarrak, ugalkortasunaz eta erditzen laguntzeaz zekiten.

Zer gertatu zen, orduan? Zenbait giroren bidez, Inkisizio Santuaren erakundeak zer ordezkatzeko zuen ulertuko duzu, haren funtzionamendua, epaiketak, fede autoak eta 1609 eta 1614 artean izan ziren gertaera nagusiak, historian erregistratu den sorgintza-prozesu handiena izan zenean.

Toki honetan, Ofizio Santuak Xaretara egin zituen bidaiak ezagutuko dituzu, salaketak, Juan del Valle Alvarado eta Alonso Becerra inkisidoreen bisita, aurreneko atxilotuak eta goren unea 1610eko azaroaren 7an eta 8an Logroñoko Fede Autoarekin izan zuen sumario baten ankerkeria. Hamaika

lagun hil ziren sutan (haietako bost irudien bidez), eta beste berrogeita bik hainbat zigor izan zituzten.

Mundua ulertzea

Kontaketa historikotik igaro eta gero, bigarren solairuan, gizarte hartan eta lurrarekin, naturako fenomenoekin, paisaiarekin eta tradizioekin zuen harremanean barneratu ahal izango zara.

Unibertso mitologikoa

Ikus-entzunezko batek unibertso mitologiko oso bat erakutsiko dizu, eta hartan protagonistak Mari, Basajaun eta laminak izango dira. Bi ukipen-pantailaren bidez, zure ezagutzak probatu eta etnografoek bildutako kontaketa nagusiez gozatu ahal izango duzu, Nafarroako mapa baten gainean.




Antzinako jakinduria

Antropologikoagoa den ikuspegi batetik, landa-ingurune honetan emakumeak zuen eginkizuna berrikusiko dugu. Etxekoandrearen figura, familiaren balioen euskarria eta antzinako jakinduriaren eramailea zenarena.

Emaginek, sendalariak, belarketariak... beren ezagutzak erabiltzen zituzten eriak sendatzeko, zenbaitetan sorgintzako jardunbideekin nahastu zituzten erritu magikoek lagunduta.

Eremu hau ikus-entzunezko batek amaituko du. Akelarrera eramango gaitu, hura ikusteko bi modu erakutsiz: jai tradizional moduan eta zorotasun oniriko moduan.



Henningsenen aurkikuntza


Hirugarren solairuak, ezusteko berri batek, Gustav Henningsen daniar ikertzailearen eta haren emazte eta lanen itzultzaile Marisa Rey-Henningsenen ondarearen zati txiki bat babesten du. Gustav Henningsen aditu handiena izan zen mundu osoan Inkisizioaren garaiko sorgintzan.

Henningsenen aurkikuntza handia izan zen Salazarren paperak esaten zietenak aurkitzea, funtsezkoak izan zirenak Nafarroako sorgin-ehiza eta Zugarramurdiko prozesua aztertzeko.

Ibilbidea egiten da haren biografiatik eta Danimarkan izan zuen sorlekutik abiatuta, Galiziara egin zuen bidaia, Alonso Salazar de Fríasen eskuizkribuak aurkitu izana eta El abogado de las brujas bere liburuak izan zuen munta nabarmenduta. Hurbilpena da etnologo, historialari eta beste literatura-, zientzia- eta arte-lan batzuetarako inspiratzaile gisa izan zuen garrantzira.



5. Informazio erabilgarria



Gastronomia

Zugarramurdin, Xareta eskualde osoan, lurretik, tradiziotik eta hain gertukoa den Frantziako sukaldaritzarekiko bat-egitetik sortzen diren zaporeen eta lurrinen espektakulua da gastronomia. Bisitatzen gaituztenak liluratzen dituen xarma.

Lezera bisita egin eta herrian kalez kale ibil eta gero, egon daiteke hizketaldi on batek eta barreek gozatutako bazkari oparo bat egitea baino bukaera hoberik? Gure produktu kutunen artean, arkumea, txahalaren txuleta, onddoak sasoian, ehiza-haragia eta ahatearen eratorriak. Eta postrerako? Mamia eta ardi latxaren esnearekin egindako gazta ondu pitin bat.

Abuztuaren 18a iristen den bakoitzean, Zugarramurdiko Lezean Zikiri Jate jaia egiten da. Arkumea erretzeko modu tradizionala da, duela mende bat baino gehiago Argentinatik ekarria, eta haragi horrekin batera salda eta piperrada zaporetsua zerbitzatzen dira.

Ez zaizu ahoa ur bihurtzen?

→ Ikusi webgunean

Ezagutu gure gastronomia

Ostatuak

Lasaitasuna, edertasuna eta erosotasuna. Badakigu zeren bila zabiltzan. Lurralde honetatik, urtero, milaka familia, bikote, lagun-talde... igarotzen dira. Zugarramurdi eta Xareta eskualdea osatzen duten gainerako herrietan dagoen ostatu-eskaintza zabala da: landetxe eta landa-hotel xarmagarriak, apartamentu turistikoak eta aterpetxeak.

Imajinatzen al duzu duela laurehun urte “sorgin” haiek bizi izan ziren etxebizitzetako batean egotea? Harri eta zurezko baserri egundokoak, gure herri-arkitekturaren funtsa gordetzen dutenak, beroak eta erosoak barnetik.

Egun, magia beste toki batzuetan aurkitzen da: gaua iristen denean txinpartaka ari den tximinia baten soinu-bandan, naturaren murmurioa besterik entzuten ez den leiho batean, belardi ezin berdeagoetan lasai bazkatzen ari diren pottokei beha zauden bitartean jaten duzun gosari patxadatsu batean.

Etxean baino hobeki sentituko zara.

→ Ikusi webgunean

Non lo egin

Kultura-agenda

Berdin du guregana zein garaitan etortzen zaren. Beti bada zereginik hemen, eta, beraz, kontsultatu agenda eta gozatu urtero antolatzen diren kultura-, jai-, gastronomia- eta kirol-jardueraz eta bisita gidatuez.

Batzuk nabarmentzearren, gogoan izan abuztuaren 14a eta 18a artean zaindariaren omenezko jaiak egiten direla, Jasokundeko Andre Mariaren omenezkoak, eta orduan egiten dugula Zikiro Jate ezaguna.

Horrez gain, martxoa iristen den bakoitzean, Haitzuloen Eguna egiten dugu. LURPEA elkarteak antolatzen du, zeinak Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkai, Lapurdi eta Nafarroa Behereko zortzi haitzulo hartzen dituen. Hezkuntza- eta jolas-proposamenak antolatzen dira txikientzat. Aukera ezin hobe izaten da lurpeko munduaren, seigarren kontinentearen, sekretuak ezagutzeko.

→ Ikusi webgunean
Kultura agenda

Turismo Turismo birsortzailea eta kontzientea

Zugarramurdin, turismo jasangarriaren, kontzientearen eta gure ingurune naturalarekiko eta ondare- eta kultura-espazioekiko errespetuzkoaren alde egiten dugu. Zure atsedeen-egunez gozatzea nahi dugu, esperientzia apartak bizitzea, eta, aldi berean, gure paisaiak zaintzea. Planeta eta bertako baliabide naturalak babestea denon ardura da.

Onartuko dituzu aholku batzuk?

- Ekidin masifikazioak eta lagundu bisitarien eta landa-inguruneetan bizi diren herritarren arteko bizikidetza.
- Kontu handia izan suarekin, basoetan suteak saihesteko.
- Egokituta edo baimenduta dauden tokietan aparkatu, biderik edo finka eta etxebizitzetarako sarrerarik blokeatu gabe.
- Beharrezkoa guztia eraman ezazu.
- Ekidin hondakinak sortzea. Jaso sortzen duzun zaborra, eta bota ezazu horretarako egokiak diren tokietan.
- Errespetatu naturaren soinuak, eta ez egin beharrezkoa ez den zaratarik.
- Egin zure irteeraren plangintza eta informatu helmuga eta toki bakoitzak eskaintzen dizunaz. Bilatu aukerak denboraldik kanpo.
- Zaindu ingurunea zurea balitz bezala, eta jokatu zure etxean bazeunde bezala.
- Kontsumitu arduraz eta aprobetxatu gertuko produktuak.

→ Ikusi webgunean

Errespetuak eta gozamenak batera joan behar dute

6. Xareta, mugarik gabeko

lurraldea

Ezinezkoa da mugak jartzea sentimen bati

Paisaia berbera, bizirik dagoen hizkuntza berbera eta antzina-antzinako garaietatik herri-kultura berbera arnasteko sentimenari. Xareta eskualdea laurogei kilometro koadroko lurraldea da, mugaz haraindikoa, eta mugaren bi aldeetan dauden lau udalerri eratzten dute: Zugarramurdik eta Urdazubik, Nafarroan, eta Sarak eta Ainhoak, Akitanian.

Lau herri, historia partekatu bat

Lau herri hauek atzerritarren okupazioak, eta gerren eta muga politikoen ondorioak bizi izan dituzte. Hala ere, beren batasun sentimena betirakoa da. Lekuak eta bazterrak, oroitzapenak, beren mitologia propioa, arkitektura-estilo bat, itsasotik gertu egotea, Donejakue bidea eta kultura-unibertso propioa partekatzen dute, dantzaren, musikaren eta herri-kirolen bidez adierazten dena.

Xaretak ohorea egiten dio izenari, "lurralde basotua".

Bisitariaren ezustekorako, hemen elkarrekin bizi dira pagadiak eta hariztiak, iratzeen alfonbra edo tapizak, artasoroak, palmondo tropikalak, kalak, eta hortentsiaz eta geranioz betetako balkoiak.

Asko duzu ikusi eta ezagutzeko.

→ Ikusi webgunean

Xaretari buruz gehiago jakin

Urdazubi

Herri honen historia ezin da ulertu Donejakue bidea eta garai bateko San Salvatore monasterioa gabe. Urdazubi hitzak ura eta zubia esan nahi du. Zaila da bertako Erdi Aroko zubien magia eta ubideetatik ibiltzen den uraren zurrumurrua ez sentitzea.

Herri atsegin hau Pedro Axularren jaiolekua izan zen, euskal literaturan erreferentziazko idazlea izandakoarena. Herrian, deigarri egiten da indianoen zenbait etxeren arkitektura. XVIII. eta XIX. mendeetan Ameriketara joan eta aberastuta itzuli ziren herritarrek eraikiarazitako jauregi ederrak dira.

→ [Ikusi webgunean](#)
Ezagutu Urdazubi

Zer ikusi Urdazubin

Ikaburuko Lezea

Xareta lurpean bira liluragarria egiteko bidea ematen du, Zugarramurdiko Lezeaz gain, beste bi bisita baitaitezke handik gertu. Alde batetik, Ikaburuko Lezeak, Urdazubin, Goi Paleolitoko historiaurreko aztarnategiak, Urtxume ibaiak higatuak, formazio ugari hartzen ditu: estalaktitak, estalagmitak, marmokak, kaltzitazko azaloreak, errezelak...

→ [Ikusi webgunean](#)
Urdazubiko lezeakak

Zer ikusi Urdazubin

San Salvatore monasterioa

XI. mendean sortua, premontretar abade-etxe honek botere sozioekonomiko eta politiko ikaragarria izan zuen XII. eta XIII. mendeetan, eta Bizkaiko meatzeetatik ekartzen zen burdina urtzen zen zenbait burdinola kontrolatzen zituen.

Egungo eliza, XVII. mendekoa, gurutze latinoko oinplanoa duen eraikin sendoa da, izar-itxurako gurutze-ganga eta korua dituen. Monasterioaren aurreneko solairuan, erakusketa zaindu bat dago, “Monasterioaren bideak”, eta bertan bere historia eta bizimoduak kontatu eta toki batzuk birsortzen dira. Klaustroa diseinu soilekoa da, eta bere harlanduzko lanak kolore gorrixka bereizgarria du. Hainbat euskal artista garaikideren hirurehun artelan baino gehiago ditu ikusgai.

Zer ikusi Urdazubin

Irin-errota

Hasieran monjeek eraikiarazia, herria gurutzatzen duten ur-lasterrak aprobetxatzeko, errota zahar zaharberritu honek (XVIII. mendean zaharberritua) bisita gidatuak ahalbidetzen ditu, gari-irina eta arto-irina egitean errotarren lana ikusteko.

Zer ikusi Urdazubin

Dantxarineko “bentak”

Mugako lurralde honen espiritu merkatariak ezaugarria eta baliabide ekonomiko ezin garrantzitsuagoa izaten jarraitzen du. Dantxarinea auzoa merkataritza-gune handi bihurtzen da egunero, mota guztietako hogeitaz estalezimendurekin baino gehiagorekin (elikagaienak, modakoak, hornitegiak...). Benta esaten zaie saltoki horiei, eta astelehenetik igandera zabaltzen dituzte.

Sara

Euskarazko esaera zahar batek “Saran astia” esaten du, toki honetan denbora gelditu egiten dela esan nahian. Larrun gailur mitikoaren oinean kokatuta, Frantziako herri politenetako bat gisa katalogatuta dago ofizialki.

Sara, gainera, luxua da ibiltariarentzat. Oinezkoentzako eta BTT bizikletetarako ibilbideen sorta handia du. Bidexka horietako bat Galtzadaren zati batean dago. Galtzada Donibane Lohizunetik etortzen zen ibilbidearen zati den Erdi Aroko harbidea da. Hainbat santuri eskainitako otoizleku txikien kate bat ezagutzeko aukera ematen du. Herrian hamalau daude, tradizioaren arabera, XVII. mendean eraikiak.

→ Ikusi webgunean

Ezagutu Sara

Zer ikusi Saran

Paseo lasaia

Egun, Sara herrigune erakargarria eta oso zaindua da. Bertako kale nagusia Multzo Monumental izendatuta dago, bere edertasunarengatik eta Lapurdiko arkitekturaren kontserbazioarengatik. Plazatik abiatuta, frontoiaren parean udaletxe arkupeduna, San Martin eliza eta intereseko zenbait eraikin daude, herritar ezagunei aipamena edo oroitzapena egiten dieten plakekin. Ostalaritzako eta merkataritzako eskaintza zabalaz gozatzeko aukera ere badago.

Zer ikusi Saran

Sarako Lezea

Sarako Lezean K.a. 45.000. urteko tresnak aurkitu dira. Lauzak jarrita dituen bide batetik, eta argi- eta soinu-muntaia bati jarraituta, 900 metroko ibilbidea egiten da, haitzuloaren jatorria eta euskal mitologiari buruzko hainbat alderdi ezagutzeko. Kanpoaldean, sarrera libre izanda, Historiaurreko Museoan eta Parke Megalitikoan ibil zaitezke, trikuharrien, harrespilen eta iruinarrien kopiak baitaude.

→ Ikusi webgunean
Sarako lezeakak

Zer ikusi Saran

Larrungo trena

1923an inauguratua, Frantziako Estatuan kontserbatzen diren hiru kremailera-trenetako bat da. Orduko bederatzi kilometroan joanda, hogeita hamabost minutu behar dira gailurrera iristeko. Oskarbi dagoen egun batean joanez gero, ikuspegi panoramikoak hitzik gabe utziko zaitu: Pirinioak, Xareta eta itsasertz osoa, Biarritzetik Donostiaraino.

Igoeran, pottokak, ardi latxak eta zeru-goietan begiztatzen dabiltzan putre batzuk ikusiz gozatuko duzu.

Ainhua

Bastida herri txiki hau, Erdi Aroan sortua Donejakue bidearen mugaz haraindiko ardatzetako baten inguruan, goi-ordoki batean dago, mendi-hegal berdeek inguratuta. Garai bateko etxeen ilara batean egituratuta dago Ainhua, eta etxe horiek Lapurdiko estiloa kontserbatzen dute, karez zuritutako fatxadekin eta gorriz edo berdez margotutako zurezko armazoiekin.

Herriaren merkataritza-tradizio aberatsa orain arte mantendu da, eta bertako produktuak saltzeko establezimendu zainduak, oroigarrien dendak eta helmuga gastronomiko nabarmen bihurtzen duten jatetxeak eskaintzen ditu.

→ Ikusi webgunean
Ezagutu Ainhua

Zer ikusi Ainhoan

Maison du Patrimoine

Maison du Patrimoine bisitatzea intereseko jarduera da. Interpretazio-zentroa da, non murgiltze-esperientzia batez goza daitekeen 30 metro koadroko eta 150 graduko kurbadurako pantaila baten bidez. Hogeita bost minutu zirrargarri Lapitxuri ibaiari jarraituz, Xaretaren sekretuak ezagutzeko.

Zer ikusi Ainhoan

Parrokia-eliza eta hilerria

Ezin bananduzkoak diren hiru eraikuntzak eratzen dute Ainhoaren bihotza: eliza, hilerria eta frontoia. Nahiz eta uste den hasieran gaztelua izango zela, Jasokundeko Andre Mariaren eliza XIII. mendean eraiki zuten. Bost mailatako dorre karratua eta XVI. mendearen bigarren erdiko nabea nabarmendu behar dira. Nabe horri galerien bigarren solairu bat gehitu zitzaion, haritz zizelkatuarekin egina eta zurezko balaustre torneatuekin.

Esparru bereberean hilerria aurkituko duzu, disko-formako hilarrien ilarek ordenatuta. Lauburuak, figura geometrikoak, landareen sinboloak eta hildako pertsonen lanbideen erreferentziak dituzte hilarri horiek apaingarri.

Zer ikusi Ainhoan

Pottoka urdinaren bidea

Ia hogeita hamabost kilometroko ibilbide zirkular honek, Pottokaren bideak, kontrabandisten ibilbidea ere esaten zaionak, lau herrietako plazak eta hiru lezeakak lotzen ditu. Harrien gainean margotutako zaldi txiki baten bidez seinaleztatuta dago, hain zuzen.

Belardi, baso eta baserri artean egiten den ibilbide ezin ederragoa da, bidexketan, basoko pistetan eta gurdibideetan joaten dena. Zugarramurdiko Sorginen Lezean hasi eta aldameneko Urdazubi herrian amaitzen den 5,5 kilometroko zatia egitea iradokitzen dizugu.

→ Ikusi webgunean. [Ibilbide osoa](#)

Zer ikusi Ainhoan

Baztango Bidea, edertasun handiko erromesaldi bidea

Iparraldetik hegoaldera lur hauek gurutzatzen ditu antzina-antzinako Donekajue bide batek: Baztango Donejakue bidea, Frantziako Baiona hiria Iruñearekin lotzen zuen adarra. Ehun kilometro baino zertxobait gehiago dira, lau eta sei egun artean egin daitezkeenak.

Paisaia eta kultura aldetik erakargarritasun handiak ditu, eta bi monumentu- eta historia-mugarri hartzen ditu barne: Urdazubiko San Salvatore monasterioa eta Belateko Monasterioa.

→ Ikusi webgunean. [Baztango bidea](#)

Zugarramurditik gertu-gertu

Ingurune pribilegiatu batean bizi gara, egonaldi luzeko turistaren gozamenerako eskaintza biderkatzen baitu. Baztan-Bidasoa eskualdea, Zugarramurdirekin mugakidea, mendien, basoen, belardi berdeen eta herri xarmagarrien konbinazio ezin hobea da. Bidasoa ibaiak eskuzabaltasunez ematen dio izena historia duen eskualde bati. Ibaiak batzen ditu. Uraren Bailarak dira.

Ondare aberatsa esploratzeko

Ikusi eta ezagutzeko ondare zabala eskaintzen duen ingurunea da: arkitekturako ondarea (Erdi Aroko dorreak, errotak, jauregi barrokoak...), kulturakoa (burdinari eta arte-sorkuntzari buruzko museoak), etnografiakoa (landa-arloko inauteriak) eta arkeologiakoa (estazio megalitikoak).

Kirolaren zaleentzat

Bizikleta eta xendazaletasuna gogoko badituzu, Bidasoako Natur Bidea zure paradisia izango da. Ibilbide zikloturista egokitua da, berrogei kilometrotik gorakoa, Tren Txikito esaten ziotenaren bideari jarraitzen diona. Garai bateko tren horrek Oieregi (Nafarroa) eta Irun (Gipuzkoa) lotzen zituen.

Bizkar-zorroa jantzi eta ondoko Baztan bailara zeharkatzen duen Donejakue bideko etapak, Frantzia Iruñearekin lotzen duen bidekoak, ere egin ditzakezu.

Astia hartu eta lur paregabe eta abegi oneko hau bizitzeko aukera sorta.

→ Ikusi webgunean

Ezagutu Baztán-Bidasoa

ZUGARRAMURDIKO SORGINEN MUSEOA



Financiado por la
Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INDUSTRIA
Y TURISMO



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



Zugarramurdiko Udala
Ayuntamiento de Zugarramurdi